

2022KO GABONETAKO KANPAINARAKO LEGEZKO OINARRIAK

“ZENTROAN” DONOSTIAKO ZENTROKO MERKATARIEN ELKARTEAK, G20705588 zenbakidun IFK duenak, Donostiako Zentroko tokiko komertzioetan erostearen aldeko kanpaina bat egitea erabaki du, ondoren adierazten diren OINARRIAK dituen.

LEHENENGOA: Promozioaren xedea eta sariak

ZENTROAN elkarteko kide diren komertzioak ezagutzera emateko eta, kate handien eta merkataritza-gune handien aurrean, bezeroari balio erantsi bat eskainiz tokiko merkataritza posizionatzeko helburuz sortu da ondorengo kanpaina. Parte hartzeko, erosketa bat egin beharko dute parte-hartzaileek kanpainari atxiki zaizkion komertzioetakoren batean (ikus I. eranskina), 2022ko abenduaren 15etik 30era, biak barne. Aldi berean, QR kodea eskaneatu edo www.zentroan.com webgunean sartu beharko dira, eskatzen zaizkien datuak bete eta egindako erosketaren tiketaren argazkia igo.

Hiru janari-saski zozkatuko dira parte-hartzaile guztien artean, bakoitza 600 euroko baliokoa. Ondorengo produktuak izango ditu saski bakoitzak:

- 2 botila ardo beltz + upategi batera bisita barne
- Botila bat ardo gozo
- Lau gazta zati
- Botila bat olio
- Bi lata zainzuri
- Bi urdaiazpiko zorro
- Txorizo ale bat
- Saltxitxoi ale bat
- Solomo ale bat
- Poto bat etxeko tomate
- Bi kaxa gauza-gozo
- Kaxa bat bonboi
- Pakete bat turroi
- Pakete bat polboroi

- Pakete bat talo
- Lata bat foie
- Bi poto marmelada
- Poto bat trufa-saltsa
- Poto bat mostaza
- Poto bat espezia
- Lata bat legatz-trontzo
- Lata bat hegalabur
- Lata bat sardinatxo
- Iriondo etxearen saski bat

BIGARRENA: Parte-hartzaileak

Ezarritako egunetan kanpainari atxiki zaizkion komertzioetakoren batean (ikus I. eranskina) erosketa bat egin duten 18 urtetik gorako pertsonak parte har dezakete jarduera honetan. Horrez gain, zera egin beharko dute:

- QR kodea eskaneatu edo www.zentroan.com webgunean sartu
- Inprimakia bete, datu hauekin:
 - o Izena
 - o Abizena
 - o Helbide elektronikoa
 - o Telefono-zenbakia
- Egindako erosketaren tiketaren argazkia igo

Kanpainan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da lege-oinarriak irakurtzea eta onartzea, baita komunikazio komertzialak jasotzeko baimena ematea ere.

HIRUGARRENA: Iraupen-aldia

2022ko abenduaren 12tik 30era (biak barne).

LAUGARRENA: Zozketa

Abenduaren 31n egingo da zozketa, 10:00etan. www.zentroan.com webgunetik bertatik egingo da zozketa; webgune hori ausazko zozketa bat egiteko programatuta egongo da, eta hiru irabazle aukeratuko dira parte-hartzaile guztien artean. Kanpainak irauten duen bitartean, webgune horretatik bertatik parte-hartzaile guztien datuak jasoko dira; erosketa eta inskripzio bakoitza independentea izango da, beraz, zenbat eta gehiagotan parte hartu, orduan eta aukera gehiago egongo da saria irabazteko. Halaber, Zentroan elkartearen Instagrameko profilean (@zentroan_) argitaratu ahal izango dira irabazleen izenak.

BOSGARRENA: Irabazleekin harremanetan jartzea

Behin zozketak egin ondoren, telefonoz jakinaraziko zaie irabazleei, beren sariak jasotzera joan daitezten. **Irabazleari bakarrik esleituko zaizkio sariak, eta hark ezingo dizkio beste inori eman. Bi telefono-dei bakarrik egingo dira.**

Irabazleetakoren batekin harremanetan jarri ezin izanez gero, ordezkoen zerrendako hurrengo irabazleari deituko zaio, eta horrela, irabazleren batekin harremanetan jartzea lortu arte. Irabazlea bera ez bada joaten pertsonalki saskia jasotzera, bere izenean joaten den pertsonak irabazlearen baimena eraman beharko du sinatuta bere izenean, bai eta baimena ematen duen pertsonaren NAN agiriaren kopia ere.

Saria jaso ahal izateko, argazkia ateratzeko baimena eman beharko du irabazleak, bere irudi-eskubideak lagaz eta argazkia komunikabideetan eta **GIPUZKOA MERKATARIAK** elkarteak kudeatzen dituen sare sozialetan argitaratzeko baimena emanez (GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAK kudeatzen ditu Zentroan Donostiako Merkatarien elkartearen sare sozialak ere).

SEIGARRENA: Sariak jasotzeko eguna, lekua eta epemuga

2022ko abenduaren 31tik aurrera, irabazleei deitu ondoren, jaso ahal izango dira saskiak, telefonoz adierazitako establezimenduetan. Saskiak jasotzera pertsonalki joan ezin izanez gero, saskiok irabazleak adierazitako helbidera bidaltzeko aukera emango da, betiere EAE barruan. Nolanahi ere, 2023ko urtarrilaren 15a izango da (egun hori barne) saskiak jasotzeko epemuga.

Behin irabazleekin harremanetan jarri ondoren, **GIPUZKOA MERKATARIAK** federazioaren <http://www.fmg.es/nuestras-asociaciones/zentroan> webgunean argitaratu ahal izango da irabazleen zerrenda. Ondore horietarako, saritutako pertsonak beren izen-abizenak irabazleen zerrendan argitaratzeko baimena ematen dute.

ZAZPIGARRENA: Trukea egiteko baldintzak

- o Sariak ezingo dira trukatu duten diru-balioaren truke, eta ezin izango da egin produktuen inolako aldaketarik.
- o Gipuzkoa Merkatariak Federazioa ez da izango erosketen emaitzen erantzule; emaitza horiek bezeroaren eta establezimenduaren arteko harremanari bakarrik dagozkio.

ZORTZIGARRENA: Araudia onartzea

Jarduera honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar berarekin.

Gipuzkoa Merkatariak Federazioaren www.gipuzkoamerkatariak.com/nuestras-asociaciones/zentroan/ webgunean kontsulta ditzakete bezeroek zozketaren oinarriak.

BEDERATZIGARRENA: Datuen babeserako Legea

GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAK, tratamenduaren arduraduna den aldetik, zure datuak biltzearen helburuak honakoak direla jakinarazten dizu: harremanetarako datuak kudeatzea, komunikazio eta informazio orokorrerako, publizitaterako eta merkataritza-prospekzionerako. Interesdunaren baimena da tratamendurako oinarri juridikoa. Zure datuak ez zaizkie hirugarrenei emango, horretarako legezko obligaziorik egon ezean. Edozeinek du eskubidea bere datu pertsonalak eskuratzeko zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, aurkartzeko edo eramateko; horretarako, gure bulegoen helbidera idatz dezake, edo posta elektronikoki bidal diezaguke helbide elektronikora, eta zein eskubide erabili nahi duen adierazi. Gure webgunean () eskura dezakezu informazio gehigarria.